


EMAKUMEZKOEN ETA GIZONEZKOEN ARTEKO BERDINTASUNA



GENERO ZEHARKAKOTASUNA

**UDALAREN KOORDINAZIO TALDEA,
EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA ARLOA
LANTZEA XEDE DUENA**

Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua





UDALAREN KOORDINAZIO TALDEA, EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA ARLOA LANTZEA XEDE DUENA

Koordinazio Taldea 2015eko azaroaren 24an bildu zen lehendabiziko aldiz, Udalak eskatuta, eta bilera hartan honako hauek hartu zuten parte: Altsasu, Olazti eta Ziordiko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea, Altsasuko Osasun Zentroa eta Foruzaingoa.

Entitate parte-hartzaileek honako testu hau adostu zuten:

Taldearen xedea da dauden baliabideei buruzko informazioa trukatzeta eta partekatzea, eta jarduteko moduak adosten joatea, emakumeei indarkeria-egoeretatik irteteko prozesua errazteko.

Honako eginkizun hauek ditu:

- *Dauden baliabideen berri ematea eta deitutako erakunde bakoitzaren lan-ildoak ezagutaraztea.*
- *Balitzko deskoordinazio-egoerak aztertzea eta horiek gainditzeko proposamenak egitea.*
- *Altsasuko/eskualdeko genero-indarkeriari buruzko datuak aztertzea, jarduera-ildoak hobetzeko.*
- *Hala badagokio, sentsibilizazio- eta prebentzio-jarduerak proposatzea.*

Udalak, Emakumea eta berdintasuna Zerbitzuaren bidez (horren arduradun teknikoa), urteko prestakuntza-programa bat antolatu du. Nolanahi ere, hartan parte hartu dezakete gaien interesa duten pertsona eta erakunde guztiek.

